

**ARGITARRA TUTAKO KAPITULUAR**

- 1.- TEKLADUN AEROFONOAK
- 2.- TEKLADUN KORDOFONOAK
- 3.- METALEZKO AEROFONOAK
- 4.- ZUREZKO AEROFONOAK
- 5.- HARI IGURIZIZKO KORDOFONOAK
- 6.- HARI SAKATUZKO KORDOFONOAK
- 7.- PERKUSIOA -I-
- 8.- PERKUSIOA -II-

**HOTSAK SORTZEN**

**PERKUSIOA -II-**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAREN  
LAGUNTZAZ EGINA  
EIMA - Programa, 94

## ZER DA HOTSAK SORTZEN?

HOTSAK SORTZEN bideo-serieak gaur egun musikaren munduan erabiltzen diren musika-tresnak, taldeka sailkatutik, ikaslegoari erakutsi nahi dizkio eta, bere helburu nagusia ikaslego horri musikaren alderdi honen ulermena erraztea eta laburbiltzea litzateke.

Bideo-seriea musika ematen duen irakaslea bere eguneroko lanean laguntzeko tresna osagarri bat eskaintzeko asmoz eratu da. Horrela berak eskuartean dituen beste laiko bitartekoak, liburuak, musika-tresna bidezko ekimenak, audizioak e.a. HOTSAK SORTZEN bideo-serieaz indartu eta aberastu egin ahal izango ditu.

Musika-tresnak sailkatzerakoan erabili den hiztegia orohar, C.Sandis-ek 1914. urtean proposatu zuenari jarraituz osatu da. Dena dela irakasleak ikusi behar du zein hiztegi komeni zalon, orain arte arabili duena kontuan hartuta. Hala ere interesgarria litzateke ikaslegoarengan antzinako formei buruzko jakinahlia pliztea. Izan ere gaur egun arruntki erabiltzen diren halnbat hitzek, orduko oroitzapena baitakarr-kigute. Besteak beste "telefono", "fo-noteka" eta horrelakoak.

## NOIZ ETA NOLA ERABILI HOTSAK SORTZEN

Hots eta doinuak sortzen duten musika-tresnei buruzko lan didaktiko hau, HOTSAK SORTZEN bataiatu duguna, De-trigortezko Bigarren Hezkuntzan di-harduten taldeentzat pentsatua dago. Adierazpen Instrumentala izenburua duen Atal Nagusian legoke eta honen barruan Bigarren Edukin Multzoan "Adierazpena eta Komunikazioan" alegia.

Bideo-serieari heldu aurretik komenigarria litzateke ikaslegoa apur bat prestatutik izatea. Horretarako, modu enpirikoan bada ere, irakaslearen hitzaldiak medio, ikaslegoa musika-tresna eta hotsen berezitasun fisikoan berri izan dezan salatuko gara lehenbizi. Gero, ezaguera enpiriko horretatik egoera kognoszitibora iragan daitezten ahaleginduko gara, Bigarren Edukin Multzo hau eta Hirugarrena "Musika Historian" dioena erlazionatuz.

## SERIEAREN EDUKIN OROKORRAK

Bideo bakoitzak eremu historikoan aurkeztuko ditu musika-tresnak, garatan garako moda eta estiloen eboluzioak berarengan sortutako aldaketak erakutsiz bai teknikoki bai aipingarrietan. Musika-tresna ezberdinak ikusteak "Hotsak nola sortzen diren" erakustea du xede. Gal honek berebiziko zailtasunak ditu halnbat kasutan, esate baterako organoan. Horregatik, nahitaezkoa da instrumentuak zehatz mehatz ikustea eta entzuita guzti hori ulertzeko. Horra hor ikus-entzutezkoen papera.

Bideoan kontu handiz ukitzen den beste alderdi bat zera da: musika-tresna bakoitzari dagokion toki fisikoa eta ingurunea. Azken hauek aldatuta nabarmentzen ezagutu dute historian zehar, garaia, giroa eta musika-tresnaren erabileraren arabera.

## HELBURU OROKORRAK

- 1.- Musika-tresna bakoitza berezko dituen doinuak medio ezagutua izan dadin lortzea.
- 2.- Doйна eta doinu hori ekoizten duen musika-tresna erlazionatzea. Horrekin batera doйна sortzeko modua eta forma musika tresnarekin erlazionatu.
- 3.- Musika-tresna bakoitzak historian bete duen lekua kokatzea.
- 4.- Doinuaren berezitasunak ezagutu, aurreko esperientzia musikalean jasotako ezagueraz ballatuz.
- 5.- Musika-taldean barnean instrumentuak bereiztea. Lan hau musikagile kopuru ezberdinez osaturiko musika taldeekin egingo dugu.
- 6.- Musika-tresnak ikaslearen ingurune hurbilarekin erlazionatu.
- 7.- Mendebaldeko musika-talde garrantzitsuenen ezagutza. Batla norberaren herri ingurukoak ere.

## BIGAREN HELBURUAK

- 1.- Entzumena garatzea.
- 2.- Doinuaren berezitasunak partitura batean nola adierazten diren ezagutzea.
- 3.- Doinuaren ezaugarri guztiak sor dezaketen instrumentuak sortzea.
- 4.- Musika eta natura elkartzea. Mani-festazio hau nola ematen den erakustea instrumentuetan. Esaterako organoak badu "txori kantua" izeneko erregistro bat.

## JARRERAZKO HELBURUAK

- 1.- Talde lana bultzatuz, taldeari bu-ruzko balorazioa eta errespetoa landu.
- 2.- Erantzukizunaren garapena proposaturiko ekintzetan parte bizia hartuz.
- 3.- Atenzioa, obserbazioa, kontzentrazioa eta isiltasuna bizitu, inguruan dutenez ohartzeko (hotsak eta doinuak barne) biderik onenak baitira.
- 4.- Musika-lengoalaren orokortasuna sentitzen salatu munduko gizarte guz-tietan erabiltzen dela erakutsiz. Bes-talde musikaren ahalmen terapeutikoen berri ere emango diegu.
- 5.- Taldeko beste lagunekiko izan be-har dugun begirune eta errespetua ga-ratu.

## ARRIKETAK

— Ikasleek ahal duten musika tresna guztiak klaserara ekar ditzaten eskatuko diegu. Material guzti hori familliatan sailkatuko dugu edo taldeetan. Jarrailan ikasleek musika-tresna bakoitzaz de-mostrazio bat egingo dute etadeneren artean, musika-jolea eta entzuleen artean instrumentuaren ezaugarriak ze-haztuko dituzte, beti irakaslearen gidartzapean.

— Herrian edo hirian ematen diren kontzertuetara joatea nahitaezko arriketa da, bideo-serie hau modu egokian landu nahi bada. Kontzertu ostean, klasean, ikasleek ikusi duten orkestra, banda edo musika-taldea zaitu egingo dute doinu eta instrumentuen arabera.

— Bideo-seriean erakusten diren instrumentuak komeri da historikoki begiratzea. Horretarako, gure herriko zein getuen dugun hirtxo antzinako eraikuntza nahiz musicoetara joatea aholkatzen da. Toki horietan erraz aurkituko ditugu antzinako musika-tresnen arrastoak. Elizetako estatua eta irudietan edota arte ederretako musicoetako koadroetan.

Arriketa hau egin ez gero, — MUSIKA - ARTEA - CARAIKO ESTILOA, erlazionatu ahal izango ditugu.

## KAPITULUAREN GIDA DIDAKTIKOA

### EDUKINA

Kapitulua hiru atal nagusitan banatua duzu.

#### —Lehen atala. Aurkezpena.

Lehen atal honetan zehaztu gabeko perkusiozko musika-tresnen bertti ematen da. Instrumentu hauek neurtezinako frekuentzia edo altuerako hotsa ematen dutenak dira. Hiru azpitalde sailkatzen dira:

metalezkoak, platioak esate baterako, mintzdunak, bonboa eta kaxa adibidez, eta gai ezberdinez osatutakoak, besteak beste, kaskabelak, marakak eta nahi dugun hotsa sortzeko asma ditzakeen guztiak.

#### —Bigarren atala. Historia.

Bigarren atala zehaztu gabeko perkusiozko musika-tresnen historiari eskalri dlogu. Bertan historiaturreko garailetaraino hurbilduko gara. Izan ere, orduko gizakiek herriezberdinek elkarren artean komunikatzeko, bortizki joz, hots indartsua ekoizten zuten instrumentuen bidez, hizkuntza berezia eraltua baitzuten. Era honetako instrumenturik zaharrenak, historialarien iritziz, platio edo zimbaloak izateke. Hemezortzigarren mendean, Ekialdeko Iurretatik, gonga eta tam-tama ekarti zituzten. □  
Baina, denen artean, danborra dugu inolako zalanizarik gabe, munduan zehar gehien zabaldutako den musika-tresna.

#### —Hirugarren atala. Bateria.

Atal honetan, perkusiozko instrumentu ugari biltzen dituen musika-tresna bat ikusten da Bateria, alegia.

Definitzior esango genuke, bateria musika-jole bakar batek erabiltzen duen perkusiozko musika-tresna multzoa dela. Bateria batek dauzkan instrumentu kopurua eta beraien hots-aukera mugagabeak dira.

Baterietan pedaldun bonboak, toms-tomsek, zintzariak, platerxoak, txarrestona eta kara-jarrri ohi dira nagusiki. Horiek guztiak kolpatzeko baketa, gabiko edo eskubila ezberdinak erabil daitezke.

#### —Laugarren atala. Perkusiozko beste musika tresnak.

Arestian esan dugun bezala, zehaztu gabeko hotsa ematen duten instrumentuen zerrenda amalezina da. Azken atal honetan horietako batzuk ikusiko ditugu. Hona hemen beraien izenak:

**Djembea**, Senegaleko danborra da.

**Konga** edo tumba, Kubakoa.

**Afrikako danborra** oso antzinakoa da.

**Gortina**, hodi mehe multzoa da.

**Shakerra** maraka modernoari esaten zaio.

**Krotaloak** metalezko bi platerxo dira.

**Euri-makila** banbuzko karnabera luze bat da.

**Zistros** aberen apaxka multzoa da.

**Kaskabelak**, **cabaca**, **kampaitxoak**, **fleratzona**, eta abar.

## GLOSARIOA

ZEHAZTU GABEKO HOTSA  
PERKUSIOA MINTZA MINTZDUNAK  
FELDROA GABIKOA  
DARDARAZI  
ERRESONANTZIA-KAXA  
UZTALAK UHALA TRIPA  
METAL ZETA  
BORDOIA LAZOTU  
HOTS APALA HOTS BIZIA

## LIBURUAK

--El libro de la música--  
V.V.A.A.  
Parramon Institua  
--Musicalia--  
V.V.A.A.  
Salvat, Iruña 1987  
--Atlas de la música--  
ULRICH, Michels  
Alianza argitaletxea, Madrid 1982  
--Diccionario Oxford de la música--  
SCHOLLES, Percy A.  
Edhasa, Hermes, Sudamericana,  
Barcelona, 1984.